



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2021eko egitasmoa onartu dugu bazkideok

Batzar Nagusian aurkeztu dira 2020ko balantzea eta 2021eko egitasmoa. Pandemiak proiektuan eragina izan du azken urtean, baina egoerari erantzuteko doikuntzak egin eta mekanismo berriak sortu ditu elkarteak.

Pasa den astean egin genuen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia. Aho batez onartu zituzten online eta aurrez aurre elkartutako 70 bat bazkideek 2020ko balantzea eta 2021eko egitasmoa.

Amasa-Villabonako Subijana etxean egin genuen hitzordua, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan. Lehendakaritza taldeko Maialen Lujanbio eta Miren Artetxe kideek egin zieten harrera bazkideei. Gerora aurkeztu diren alderdi nagusiak aletu zituzten: gehienak ere pandemiaren ondorioei eta hauei aurre egiteko neurriei lotutakoak, baina izan zen bestelakorik ere.

Bertso-eskolen funtzionamendua geldotu egin dela eta bertso saio asko galdu direla azaldu zuten Beñat Gaztelumendi lehendakaritza taldeko kideak eta Oier Iurrumendi sustapen eragileak. Lanku Kultur Zerbitzuak Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientearekin egon da, eta bertsolariak ere zuzenean kaltetu ditu egoerak. Sortzaileen kalte ekonomikoak

leuntzeko Sormen Kutxa ondu du elkarteak: "Norantza honetan sekula ez genuen ariketa egin: elkartetik bertsolarietara", nabarmendu zuen Igor Elortza lehendakaritza taldeko kideak.

Hezkuntza arautuari dagokionez, irakaskuntza metodologian eta ikasmaterialean egiten ari garen hobekuntzak ere izan ziren hizpide, baita Mintzola Ahozko Lantegiari buruz egingo den hausnarketa prozesua edota berripaper honetan bertan topatuko duzun partaidetza dinamika ere.

Lurraldeetako elkarrean onartutako egitasmoetako gako nagusiak ere azaldu ziren, baita horietan egin diren zuzendaritzako kideen aldaketak ere. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian aurkituko duzue.

Bazkideen datuak eguneratzen

2.500 bazkidek sostengatzen dute Bertsozale Elkartearen proiektua: "Funtzionamenduari buruzko gogoetarekin batera, bazkidezari

buruzko gogoeta egingo dugu laster, eta bazkideen datu-baseak eguneratzeko lana egingo dugu lehentasunez", azaldu zuen Jon Agirresarobe Bertsozale Elkarteko koordinatzaileak.

2020ko eta 2021eko balantzea eta aurrekontua ontzat eman dira aho batez: "Onura orokorreko elkarte izendatzeko pausoak ematen ari gara", gehitu zuen lehendakaritza taldeko Xabi Igoak.



HAIRA AIZPURUA IBARGARAI

Altzo, 2021-02-12

Eskolatik Plazara saioa

Doinua: Pilota partida bat

Gozatu egin dugu saioan barrena ta pixkat bat ahantzi pandemiarena. Ipar eta hegoa elkartuta dena ta gazteei emanez oihartzun ozena. Altzo ta antolatzaileei bihotzez omena zuei esker izan gara nahiko genukeena.



Bazkideek onespenu eman diote egitasmoari. / XDZ

Bigarren itzulia, **laster**

Partaidetzari buruzko dinamika egiten ari gara Bertsozale Elkartean. Udazkenean hasi genituen saioak lantaldeka; lehen fasea amaituta, udaberrian ekingo zaio bigarrenari.

Ikerkuntza Batzordea, Gai-jartzaile Taldea, Aisialdiarena... hamaika gune ditu Bertsozale Elkartek, eta hamaika lagun gabiltza horietako bakoitzean. Gune horietako funtzionamendua, guneen artekoa eta elkarteen baitakoa izan dugu eta izaten ari gara aztergai azken asteotan. Helburua ahalik eta funtzionamendu onena erdiesteko, egitura bera aztertzea da, eta egoki ikusten diren doikuntzak egitea.

Farapi aholkularitza taldearekin diseinatu dugu dinamika. Behin elkarteko lanerako guneak identifikatuta, talde horietako

partaideek lansaioak egin ditugu diagnostia egiteko: 30 saio gauzatu dira, guztira.

Orain bigarren fasean murgilduko gara; apirilean izango da hori. Guneak bigarren aldiz elkartuko dira, diagnostia eginda, funtzionamendu egokirako neurriak adosteko. Lehenean bezain gogotsu eta parte-hartzaile behar zaitugu, emaitza ahalik eta arrakastatsuena izateko eta denon artean elkarteen aldarmioak modu eraginkorrean ipintzeko!



Gunez gune elkartu gara partaidetza prozesua burutzeko. / XDZ

Jarraitu Getarian egingo dugun Bertso Eguna **Internetez**

Cristóbal Balenciaga Museorako sarrerak amaitu dira; online zuzenean ikusteko sarrerak badaude. Alaia Martin, Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi ariko dira bertsoan, Maite Berriozabalek jarritako gaiari erantzuten.

Martxoaren 27an Getarian izango den Bertso Eguna zuzenean jarraitu nahi duenak Internetez egin beharko du, aretorako sarrerak amaitu egin baitira. Horretarako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude, 5 euroren truke; 3 euro, bazkideen kasuan.

Alaia Martin, Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi ariko dira bertsoan, Maite Berriozabalek jarritako gaiari erantzuten. Lagun gehiago ere batuko zaizkie protagonistei oholta gainean: Eli Pagolak, Maider Arregik, Manex Agirrek eta Rosi Lazkanok ere hartuko dute parte emanaldian.

Bertso Egunaren aurrelanean ibili da Beñat Gaztelumendi bertsolaria eta horrela hitz egin du martxoaren 27ko ekitaldiari buruz: "Isolamendu garaietan ere josi egiten gaitu bertsoak. Elkarrengana josi. Komunitatera josi. Eragiteko josi. Askatzeko

josi. Joskuretatik Bertso Egun bat osatuko dugu Getarian. Bertsolaritzaren baitako formatu, bertsokera eta gorputzak josiz osatuko baitugu emanaldia. Oholtza gaineko elementuak elkarrekin korapilatuz. Oholtza eta oholtzatik kanpokoak hurbilduz. Bertsoan aritzea ez baita bakarkako lana: elkarrekin, elkarrengandik eta elkarrentzat aritzen gara bertsoan, eta lotzen gaituen horri erreparatu, ordu bat eta erdi pasatxoko emanaldia josiko dugu martxoaren 27an."

Hitzordua 18:00etan hasiko da Getariako Cristóbal Balenciaga Museoa.

Bestalde, gogoan izan Hazpainen izango dela 2021eko hirugarren Bertso Eguna, eta emanaldi horretarako sarrerak ere eskuragai daudela www.bertsosarrerak.eus atarian.

Nafarroako bertso plaza martxan jarriko dugu Zapla! egitasmoarekin

Denetariko zazpi saio antolatuko ditugu apirilaren 23tik maiatzaren 15era bitarte Nafarroako zazpi herritan. Plazak sustatzeko eta saio motetan eta ariketetan berritzeko baliatu nahi da zirkuitu berri hau.

Nafarroako Bertsozale Elkartetik Zapla! egitasmoa sortu dugu herrialdeko plaza aktibatze eta sustatzeko. Bertso zirkuitu bat da Zapla!, zazpi bertso saio osatuko duten ziklo bat. Apirilaren 23tik maiatzaren 15era arte, Nafarroako zazpi herritan egingen dira emanaldiak, eta saio bakoitzean bertsolari ezberdinek hartuko dute parte. Ekitaldi bakoitzak, gainera, askotariko ezaugarriak izango ditu.

Pandemiak bertso plaza ia desagerrarazi duen honetan, eta, Nafarroako Bertsolari Txapelketa atzeratuta, nafar bertsolariak eta gai-jartzaileei plazak eskaintzea da egitasmoaren helburuetako bat. Bestalde, kultura eta bertsolaritza seguruak direla eta erantzukizunez antolatu daitezkeela erakutsi nahi da, ereduak emanez.

Denetariko saioak

Txapelketak eskatzen duen saio eta egitura zurrunetik harago, bestelako saio mota, gai eta ariketa moldeekin esperimentatzeko aukera baliatu nahi da ekimenarekin. Bertso saioen diseinuan berri eta esperimentatu nahi da, ohikotik harago egon daitezkeen ariketa, gai eta saio motak proposatuz.



Era berean, bertsolaritza aniztasuna ere islatu nahi dugu egitasmoarekin, saio mota ezberdinak bilduz. Horrela, bertso jaialdiak, *Bidasoan gora* liburuan oinarritutako saioa, *Zentzumenei bertso* saioa, bertso trama, koplak, saioa zein bertso bazkaria egongo dira aukeran; denetariko saioak, beraz.

Herriz herri, Nafarroan

Apirilaren 23an hasi eta asteburuz asteburu ibiliko da Nafarroan zehar zirkuitua, maiatzaren 15era bitarte. Lizarran, Beran, Irurtzunen, Zizur Nagusian, Antsoainen, Agoitzen eta Arantzan egingen dira Zapla! egitasmoko zazpi saioak.

Saio bakoitzean kantatuko duten bertsolariak zeintzuk izango diren, ordutegiak zein lekuak www.bertsozale.eus atarian topatuko dituzue, xehe-xehe.

Sarrerak eskuratzeko, berriz, www.bertsosarrerak.eus atarira jo dezakezue, 6 eta 8 euroren artean lor daitezke; bertso bazkarikoak izan ezik, beste guztiak.

Egitasmo anitza eta denetariko saioak: badaukagu zertaz gozatua Nafarroan udaberrian!

Martxoaren 27an eta 28an eskainiko dugu denboraldiko azken Hitzetik Hartzera

29 programa eskaini ditugu aurtengo denboraldian; azken programa asteburuan izango da.

Udaberriaren hasierarekin batera amaituko dugu aurtengo Hitzetik Hartzera denboraldia. Izan ere, asteburu honetan, martxoaren 27an eta 28an, eskainiko dugu saioaren azken atala.

Irailean hasi genuen denboraldia, eta, ordutik, 29 programa sortu eta eskaini dizkizuegu. Bertsolaritza ertz guztiak arakatzeko ibili gara, Eider Perez aurkezlea gidari izan dugula. Azken saioan, Sigfrido Koch Bengoeche argazkilariaren *Kearen eta lanbroaren artean* erakusketa izango dugu ardatz.

Bertso saio berezi bat antolatu zuten Donostiako San Telmon erakusketa honi lotuta, eta han izan zen Hitzetik Hartzera.

Denboraldi honetan ere, ezinbestekoa izan da Xenpelar Dokumentazio Zentroa; altxorra da artxiboa guretzat.

Denboraldi hau amaitzearekin batera hasiko gara hurrengo prestatzen. Bitartean, jarraitu bertso plazarekin gozatzen, ahal den neurrian.



Puntu jarrita

LUR RENTERIA MALETA

Libreko saioak, gaiekilako saioak zoin diren hobe, zoinek emaiten dion askatasun gehiago bertsolariari eta ea askatasun horrek publikoaren gozamina handitzen ote duen; eztabaida sakonetarako leku gutti uzten dute zutabe hauek. Maleruski urrun gelditzen ari zaizkit horrelako bertsu saioak. Xilabako azken saioa entzun ginuenetik ez dugu Ipar Euskal Herrian bertsu saio klasikorik izan.

Alta ezin erran nezake urritik gaur arte ez dudarik bertsurik entzun. Azken aldia, astebururo entzun ahal izan ditut bertsoak: herriko plazetan, sukaldeko mahai baten inguruan zein herri bateko gela ixkinetan.

Fenomeno partikular bat gertatzen ari da azken aldia ene inguruan. Ez dakit Xilabak eraginik, bertsoak sortzen duen giro horrek eramanik, edo zendako den xuxenki baina geroz eta gazte gehiago ari dira bertsoaren inguruan biltzen. Herrietan bertso-eskolak sortzen ari dira, edozoin aitzaki erabiltzen da afari edo besta baten inguruan bertsutan hasteko, buruz ikasiriko Xalbadarren zein Silbeiraren bertsuak kantatzen dira botza erlastu arte eta puntuak egiten da habanera muga gabeetan. Gazteri bertsozale bat senditzen da.

Usu aipatu dut zurekin Maindi, bertsolari berriek ekartzen duten frekkura hortaz, bertso-eskolen kontra egin gabe (ez da batere nere asmoa), iduritzen zaut bertsoan heziak izan ez diren gazte horiek badutela zerbait guk ez duguna. Formeri baino erran nahi duten horri emaiten diote garrantzia. Nago ez ote den hori, gertatzen ari denaren funtsa.

Elkartzeko eta antolatzeko eskubideak kendu dizkigute eta ganean dugun krisialdi ekonomikoak etorkizun beltza iragartzen digu, ez dugu gure burasoek bizi izan zuten helduaroa ukanen eta badakigu. Ostatu xokoan, formei hainbeste kasu egin gabe, bertsoak ideiak ordenatu eta iritzia garatzeko balio izan dit eni.

Preseski Xermin, zu sortu berri diren bertsu-eskola hoietako kide, ostatu ertzeko bertsolari:zein forma hartu behar luke bertsoak, ze funtzio bete, gaur egun dugun egoera huntan? Gizarte huntan ?

Koplak

Arabako Binakako Bertsolari Txapelketa apirilean hasiko da Apirilaren 17tik maiatzaren 22ra bitartean jokatu da Arabako Binakako Bertsolari Txapelketa. Lehenengo aldiz egingo da ekimena eta bertsolariak binaka, elkarlanean, parte hartuko dute txapelketan. Guztira bederatzik bikotek kantatuko dute. Aste honetan egingo da aurkezpena: martxoaren 27an, Zigoitian.

Poto-Finixa



Bilera biribila

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bazkideen datuak eguneratzen

Oraindik egin ez baduzu, hartu tartetxo bat datuak eguneratzeko. Zurekin dugun harremana errazteko, etengabe berrikusi eta eguneratzen ditugu bazkideen datuak. Honenbestez, lehenik ez baditugu edo aldaketaren bat baduzue eskertuko dugu bertsozale@bertsozale.eus helbidera ondorengo datuak bidaltzea: izen-abizenak, nortasun agiria, jaiotze data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta IBAN kodea. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Datu Pertsonalak Babesteko legediak xedatzen duenari jarraituz jokatu du, eta zainduko ditu datuak.



Eskuragari www.lanku.eus atarian

PUBLIZITATEA